

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GAUBEAKO UDALA

#### **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2021eko errolda jendaurrean eta kobratzeko moduan jartzea**

Behin-behineko onetsi delarik Gaubeako udalerriko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga 2021ean ordaindu behar dutenen errolda, espedientea hamabost egun baliodunegongo da jendaurrean udal idazkaritzan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodun aurrera, aztertu eta egoki jotzen diren erreklamazioak aurkez daitezzen.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

Borondatezko aldiko dirubilketa 2021eko ekainaren 1etik irailaren 30era artekoa izango da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2021eko ekainaren 30ean kobratuko zaie.

Ordainketa inongo banketxe edo aurrezki kutzatan helbideratu ez duten zergapekoek udal bulegoetan ordaindu beharko dute, borondatezko aldian.

Bankuetan helbideratutako ordainketak: udalak izapidetuko ditu. Dena den, zera jakinarazten zaie zergadunei: ordainketen banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada, Gaubeako Udalari jakinarazi behar zaio.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekareruak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Gaubea, 2021eko martxoaren 30a

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA SALAZAR SENSO**